

“TOLOSALDEA SAHARAREKIN”

“Tolosaldea Sahararekin” elkarteko kideek Saharar herriarekiko elkartasuna lortu eta errefuxatu kanpamentuetara ahal den laguntza gehiena eramateko helburua dute. Horretarako bide bat janari bilketa egitearena da.

Janari bilketa honek “Piztu Itxaropena” du izen, eta abendu eta urtarrilean gauzatzen da. Larraulen janari bilketa hau honela egingo da:

- **BILKETA EGITEKO EPEA:** 2008ko abenduaren 17tik
2009ko urtarrilaren 25ra.
- **BILGUNEA:** Larraulgo Udaletxean, bulego orduetan.
- **BILDU BEHARREKO JANARI ETA MATERIALA:**
Lekaleak, hegaluzea oliotan, sardiñak oliotan, azukrea, arroza, pasta eta konpresak.

Bestalde, bildutako elikagai guztiak Saharar Errefuxatu kanpamentuetara heltzeko bigarren eskuko kamioiak erosten dira. Kamioi horiek erosteko dirulaguntza eman nahi baldin baduzue, hemen bi kontu korronte:

Euskadiko Kutxa: 3035 0080 94 0800054177

Besterik gabe, aurrez zuen laguntza eskertuaz, agurtzen zaituztegu.

Larraulen, 2008ko abenduaren 23an.

Alkateak